# kultur gida



UDA/VERANO

2015

tokian tokikoa bultzatuz

www.deba.eus

DEBAKO UDALA

# sarrera

Ate joka datorkigu uda, berotzea nahi baino gehiago kostatzen ari zaion arren. Baina iritsiko da, gozo, gozo iritsiko diren bezala aurten ere udarako prestatutako ekimenak.

Ekimen anitzak, kulturazkoak, kiroletakoak, denbora pasakoak,...

Herriko txoko desberdinetan, herriko erakunde eta elkarte desberdinek antolatuak, herritar guztien gozamenerako.



# Ekaina

**20**

**KALEZ KALE txistulari taldea**

20:00
Foruen Plazan



**23**

**San Juan sua**

(Akelarrea)



22:00
Foruen
Plazan

**24**



## Santa Katalinan erromeria

San Juan eguna • 11:00etan



28

# SAN PEDRO

Zahagiak • Plaza Zaharrean • 22:00

# Uztaila

## 3

## Giza Proba

Gipuzkoako Liga



Euskal Jolas
pilotalekuan
21:00etan

## 4



**Soinu kontzertua**
klaustroan
20:00etan

**Bandaren dantzaldia**
Zestero plazan
23:00etan

## 10

# D'Capricho

(Kuba/Euskal Herria)

Iturri Ondoan

Uztailak 10
Ostirala
21:30ean

**D'Caprichok**, euskal musikari eta artistekin izandako kontaktuei esker, Leire Bilbao, Jon Gerediaga, Miren Agur Meabe, Joseba Sarrionandia, Arrate Mardaras, eta beste hainbat euskal poeten abestiak kantatuko dizkigu Kubako erritmo eta musika kutsakorrekin.

Horrez gain, ordea, Eliseo Diego eta Fina Garcia Marruzen poesiekin ondutako "Son en sus poemas" diskoko bizpahiru kantu erakutsiko dizkigute, kulturartekotasunaren erakusgarri.



# ZINEMA KALEAN

## 16 "Loreak"

**Uztailak 16, gaueko 22:30ean • Kultur Elkarteko plazan**

Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Beti ordu berean. Beti modu anonimoan.

Lore misteriotsu batzuek aldatu egingo dituzte Lourdesen eta Tereren bizimoduak ere. Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez.

Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte... Baina, azken batean, loreak baino ez dira.




## 17 Gilkitxaro: 8 begi

Iturri Ondoan

**Uztailak 17**
**Ostirala**
**21:30ean**

Luli Patatax eta Lander Bakon otorrinoak entzumenaren predikua esatera doazela, ikusmenari buruzko komedio-simposium-absurdua egiten bukatuko dute ezusteko baten ondorioz.

Horrela, zortzi begiz baliatuta, munduari begiratzeko modua eta bizitza ikusteko fundamentu berria aurkituko dituzte.



24

# Kukai: "Gelajauziak"





Iturri Ondoan

**Uztailak 24**
**Ostirala**
**21:30ean**

**Kukai Dantza** eta **Cesc Gelabert** koreografo handiak herri dantzei begirada berri bat emateko batu dituzte indarrak. Haren lekuko eta zelatari Nestor Basterretxea artista handiaren "Akelarre" eskultura. Izan ere, eskultura ikusgarri horren inguruan eraiki dute "Gelajauziak" ikuskizunaren koreografia.

Bi dantza sozial izan dituzte lanaren oinarri: Gipuzkoako soinu-zarrak eta Lapurdiko dantza-jauziak. Dantza hauen balio soziala, gizartearekiko atxikimendua, bat-batekotasuna... landuko dituzte.

---

25



## Bandaren dantzaldia

Zestero plazan • 23:00etan

30

## Nazioarteko Folklore Jaialdia

Uztailak 30, osteguna
Zumardian
22:00etan



# Abuztua

## II. SURFING DEBA FESTA








**Abuztuak 1:** YAKO JAIXA EGUNA

**Abuztuak 8:** - Slackline
- Piraguismoa
- Kontzertua

**Abuztuak 9:** XTREME EGUNA
- Igeriketa probak ibaian eta askoz gehiago...

6-13
20-27

DEBAKO
XXXII.
**UDAKO MUSIKALDIA**

**Abuztuak 6, 20:00etan**
Santa Maria Elizan
Organo kontzertua
Gerardo Rifón organojolea
Landarbaso abesbatza

**Abuztuak 20, 20:00etan**
Santa Maria elizako klaustroan
Ensemble DIATESSARON
Mujeres compositoras en el barroco

**Abuztuak 13, 20:00etan**
Santa Maria elizako klaustroan
Olatz Ruiz de Gordejuela, Biolina
Luis Arias pianoa

**Abuztuak 27, 20:00etan**
Santa Maria elizako klaustroan
Joaquin Asiain, Tenor
W Walter, pianoa

# Iraila

11

## Herritarrak:
# Ahots pianoz

Iturri Ondoan

Irailak 11
Ostirala
21:30ean

Herriko zenbait ahots bakarlarik eta pianojolek euskal kantu ezagunak eskainiko dizkigute marko paregabean, elizatarian: Iparragirre, Sorozabal, A. Donostia,… gozamen hutsa zentzumenentzat.



18

## Herritarrak:
# Begiradak-2

(Literatura/musika/dantza/irudiak)






Iturri Ondoan

Irailak 18
Ostirala
21:30ean

Jolasean ibili ziren iaz; irudiei hitzak jartzen, begirada desberdinak eskaintzen. Jolasean jarraitu dute aurten. Hitzei irudiak ipiniz. Irudiak ipiniz eta musika eta dantza gehituz. Musika eta dantza inprobisazioekin jolastuz eta hitza hitzarekin lotuz.

19

# BERTSO SAIOA



## Herritarrak:

# “Ez dok amairu-Sentikaria”



Iturri Ondoan

**Irailak 25**
**Ostirala**
**21:30ean**

Aurten betetzen dira 50 urte **EZ DOK AMAIRU** sortu zenetik. Taldeak eta euskal kantagintza berriak, oro har, euskara eta euskal kulturaren kontzientzia hartzean izan zuen eragina gogoratu nahian, eta orduko olatu hura birsortzen joateko urratsak eman nahian, sentikaria taularatuko dute herritarrek (kantuak, musika, dantza, olerkiak,...) ikuskizun hunkigarria eskaini nahian.






# 26 EUSKAL JAIA

Irailak 26, larunbata










3

# Kulunka:
# KABARET



Iturri Ondoan

**Urriak 3**
**Larunbata**
**21:30ean**

**Kabaret**-ek hirurogeigarren hamarkadako Bilbo zaharrera eramango gaitu. Musikarekin, umorearekin eta dantzarekin egindako ikuskizun arinak eskaintzen zituen lokal batetara. Zeremonia-maisuak gidatuko du ikuskizuna: jabe berri bat iritsiko da Kabaret-era, antzoki klasiko bat hartu duelakoan. Oinordetzan ze lokal mota jaso duen konturatzen denean, ordea, ixtea erabakiko du; ez du pentsatu showaren magiak eta artisten gizatasunak liluratuta amaituko duela.

Kulunka Dantza Taldeko dantzariek, Bergarako Udal Banda eta Orkesta Sinfonikoko ehun eta hamar musikarik eta hirurogei kantari eta aktorek, kafe-antzerki zahar hartako gaugiroa birsortuko dute, saio ahaztezina eskainiz ikusleari.

# SAN ROKE 2015: KARTEL LEHIAKETA • CONCURSO CARTELES

**JAI BATZORDEAK URTERO OSPATZEN DIREN SAN ROKE JAIAK DIRELA ETA, KARTEL LEHIAKETA ANTOLATU DU ONDORENGO OINARRIEKIN:**

1. Nahi duen edonork har dezake parte. Partehartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake.
2. Lan horiek edozein teknika edo material erabiliz egin daitezke.
3. Kartelek, nahitaez argitaragabeak izan beharko dute, hau da, norberak sortutakoak eta lanaren aurkezleak izango du erantzukizun osoa baldintza hau ez betetzearen ondorioz gerora gerta daitekeen edozein erreklamazioaren aurrean.
4. Lanak ondorengo neurritan aurkeztu beharko dira: 450 mm. zabal x 680 mm. altu.
5. Lehiaketara aurkeztuko diren kartelek, nahitaez “ABUZTUAK 14tik 18ra 2015 SAN ROKE JAIAK DEBA” izenburua eraman beharko dute.
6. Lanak sinatu gabe aurkeztu beharko dira eta aparteko kartazal batean jarriko dira egilearen datu hauek: jaiotze data, NANa eta herria, helbidea eta telefonoa.
7. Lanak aurkezteko epea 2015eko uztailaren 15etik 20ra bitartean.
8. Lanak helbide honetara bidali beharko dira: Debako Udala - Kultura Saila, Portu kalea 1, 20820 DEBA.
9. Epaimahaia Debako Udalak izendatuko du.
10. Kartel irabazlea bakarrik sarituko da eta 500euro jasoko ditu.
11. Saririk lortzen ez duten lanak, epaimahaiak bere erabakia eman ondoreneko hilabetea dute jasotzeko. Epe hori igarotakoan lanak ez baldin badira jaso, egileak kartelak Debako Udalaren esku uzten dituela ulertuko da.
12. Saria hutsik gera daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek ez balute behar adinako kalitaterik edo baliorik.
13. Saria San Roke festa programaren aurkezpenean emango zaio irabazlearen egileari.
14. Saritutako lana Debako Udalaren jabetzarako geldituko da eta honek San Roke Jaien garapena sustatzeko nahi duen edo egoki iritzitako erabilera eman ahal izango dio.
15. Ez dira onartuko oinarri hauek betetzen ez dituzten edo baldintza hauetara egokitzen ez diren lanak.
16. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla adierazi nahi du.
17. Epaimahaiak erabakiko ditu oinarri hauetan agertzen ez diren arazo guztiak eta honen erabakiaren aurka jotzerik ez da egongo.

**CON MOTIVO DE LAS FIESTAS DE SAN ROKE, “JAI BATZORDEA” HA ORGANIZADO UN CONCURSO DE CARTELES CON LAS SIGUIENTES BASES:**

1. Todo aquel que lo desee podrá participar en el concurso, pudiendo presentar un máximo de tres trabajos.
2. Puede utilizarse cualquier técnica y material.
3. Los carteles no deben de haberse publicado anteriormente, han de ser de creación propia. En caso de no cumplir este requisito, las reclamaciones que pudieran surgir correrán a cargo de quien presente los carteles.
4. Los trabajos deberán de presentarse en formato de 450mm. de ancho x 680mm de alto.
5. Todos los carteles que se presenten deberán de llevar el título “ABUZTUAK 14tik 18ra 2015 SAN ROKE JAIAK DEBA”.
6. Los trabajos deberán de presentarse sin firmar, y en un sobre aparte se incluirán los siguientes datos: fecha de nacimiento, DNI, población, dirección y teléfono.
7. Los trabajos se presentarán entre el día 15 y 20 de julio de 2015.
8. Los trabajos deberán de presentarse en el Ayuntamiento de Deba - Departamento de Cultura, calle puerto nº 1, 20820 Deba.
9. El jurado lo nombrará el Ayuntamiento de Deba.
10. Únicamente se premiará al cartel ganador, siendo el premio de 500 euros.
11. Los trabajos no premiados dispondrán de un mes de plazo para ser retirados, a partir de la decisión del jurado. Finalizado este período, todos aquellos carteles que no hayan sido retirados por su autor se entenderá que quedan en posesión del ayuntamiento de Deba.
12. El premio puede quedar desierto si el jurado considera que los trabajos presentados no ofrecen la calidad deseada.
13. El premio será entregado al ganador durante la presentación del programa de San Roke.
14. El trabajo premiado quedará en posesión del Ayuntamiento de Deba y éste lo utilizará para la promoción de las fiestas de San Roke, dándole el uso que él mejor considere.
15. No se aceptarán aquellos trabajos que no cumplan o acepten estas bases.
16. La participación en este concurso significa la aceptación de estas bases.
17. El jurado estudiará y decidirá todos aquellos casos que no aparezcan en estas bases y no se podrá actuar en su contra.

# Udako agenda 2015

**ekaina**

| Eguna | Ekintza | Tokia | Ordua |
|---|---|---|---|
| 20 | Kalez-kale txistulari taldea | Foruen plaza | 20:00 |
| 23 | Ur jolasak | Foruen plaza | 17:00 |
| | San Juan sua (Akelarrea) | Foruen plaza | 22:00 |
| 24 | Santa Katalinan erromeria | Santa Katalina | 11:00 |
| 28 | San Pedro: zahagia | Plaza zaharra | 22:00 |





**uztaila**

| Eguna | Ekintza | Tokia | Ordua |
|---|---|---|---|
| 3 | Giza Proba Gipuzkoako Liga | Euskal Jolas | 21:00 |
| 4 | Merkatu txikia | Estalitako Pasealekua | 09:00 |
| | Soinu kontzertua | Klaustroa | 20:00 |
| | Bandaren dantzaldia | Zestero plaza | 23:00 |
| | Igeriketa zeharkaldia | Hondartza | 16:00 |
| 4-7/31-8 | Erakusketa: Aitor Etxeberria | Klaustroa | |
| 5 | Deba Hiria Xake Lehiaketa | Foruen plaza | |
| 7 | Zuhatza: umeentzako ekitaldia | Zumardia | |
| 10 | Iturri ondoan: bideak (Kuba / Euskal Herria) | Plaza zaharra | 21.30 |
| 14 | Zuhatza: umeentzako ekitaldia | Zumardia | |
| 16 | Zinema kalean | Kultur Elkarteko plaza | 22:30 |
| 17 | Iturri ondoan: Gilkitxaro 8begi | Plaza zaharra | 21:30 |
| 19 | Debako mendi lasterketa | | |
| 24 | Iturri ondoan: Gelajauziak | Plaza zaharra | 22:30 |
| 25 | Bandaren dantzaldia | Foruen plaza | 23:00 |
| 27-31 | Deba hiria pala motz txapelketa | Aldats frontoia | 22:30 |
| 30 | Nazioarteko Folklore jaialdia | Zumardia | 22:00 |
| 30-7/10-8 | Argazki erakusketa | Agirre jauregia | |

| | Eguna | Ekintza | Tokia | Ordua |
|---|---|---|---|---|
| abuztua | 1 | Merkatu txikia | Estalitako Pasealekua | 09:00 |
| | | Yako festa | Hondartza | |
| | 6 | Udako kontzertua | Eliza | 20:00 |
| | 7-9 | Surfin festa | | |
| | 13 | Udako kontzertua | Eliza | 20:00 |
| | 14-18 | San Roke jaiak | Deba | |
| | 19-30 | Margo erakusketa | Agirre jauregia | |
| | 20 | Udako kontzertua | Eliza | 20:00 |
| | 27 | Udako kontzertua | Eliza | 20:00 |



| | Eguna | Ekintza | Tokia | Ordua |
|---|---|---|---|---|
| iraila | 5 | Merkatu txikia | Estalitako Pasealekua | 09:00 |
| | 11 | Iturri ondoan: Ahots pianoz | Plaza zaharra | 21:30 |
| | 10-13 | San Nikolasak Lastur | Lastur | |
| | 12 | Kale margo lehiaketa | Kalez kale | |
| | 13-27 | Margo lehiaketaren erakusketa | Agirre jauregia | |
| | 18 | Iturri ondoan: Begiradak | Plaza zaharra | 21:30 |
| | 19 | Bertso saioa | Aldats frontoian | 20:00 |
| | 25 | Iturri ondoan: Ez dok hamairu | Plaza zaharra | 21:30 |
| | 26 | Euskal Jaia | Kalez kale | |

| | Eguna | Ekintza | Tokia | Ordua |
|---|---|---|---|---|
| urria | 3 | Merkatu txikia | Estalitako Pasealekua | 09:00 |
| | | Iturri ondoan: Kulunka | Plaza zaharra | 21:30 |



# Iturri zaharretik

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten, beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, kantu zilarra entzuten,
beti berri den kantua, betiko isiltasun zaharretik...

***(J.A. Artze)***